



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2008-10-25**

VIURTEA 1.543.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Udaleko eta Nafarroako Gobernuko eta lana egin duen enpresaren ordezkariak, atzo. A. IMAZ

## ELUSEDER INDUSTRIAGUNEKO SARBIDEA ERABILGARRI

**ARESO** Atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia; Mikel Baraibar Aresoko alkateak industriaguneak herrian duen pisua nabarmendu zuen 7

## Gerontologiko berriak kanpoan estalperik ez izatea salatu dute

**TOLOSA** Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformakoen ustez, proiektuaren akatsetako bat eraikinaren aurrean geratzen den plaza da 3

**Oharra:**  
ordu aldaketa



Ordua aldatuko da gaur gauean: 03:00etan 02:00etara atzeratu behar dira erlojuak.

## Autoeskola Antikapitalista talde berria sortu dute

**IBARRA** Kontzientzia ezkertiarreko talde batek osatu du «sentimendu iraultzailea pizteko» 6



Urez betetzen hasiko dira laster. N.URBIZU

## Deforestatze lanekin hasi dira Ibiur urtegian.



# «Beldurrak gainditzeko aukera ematen du txapelketak»

**Kultura** » Eskualdeko gazte asko aritu dira aurtengo Gipuzkoako Kantu Txapelketan; euren bizipenak parta-hartzearen inguruan aritu dira.

REBEKA CALVO

*Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi, kantuz igortzen ditut nik penak ihesi; kantuz izan dudana zerbait irabazi, kantuz gustura ditut guztiak iretsi; kantuz ez dut ta beraz hiltzea merezi?* dio Mikel Laboaren *Kantuz* abestiak, euskaldunok abesteko dugun ohituraren isla garbia. Euskal Herrian badago eta kantatzeko ohitura; otorduen ondotik mahai inguruan bildu eta doinu desberdinak kantatzeko joera. Gure eskualdean ere badago kantatzeko afizioa, hori ondorioztatu daiteke behintzat Gipuzkoako Kantu Txapelketan parte hartu dutenen zerrenda ikusita.

Gazteak dira, baina eskarmentu handia dute gehienak kantuan eta musika munduan, orokorrean. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eskualdeko parte hartzaileekin mintzatzeko aukera izan du eta batez ere, era honetako txapelketetan beldurrak uxatzeko direla baliozkoak diote.

## Esperientzia errepikatuz

Euskaldekoko parte-hartzaile gehientzat, aurtengoa ez da lehen aldia izan. Berastegiko Maialen Etxeberriaren kasua da. Gaztearentzat aurtengoa hirugarren aldia izan da: «Azken hiru urteetan aritu naiz txapelketan». Aurtengo txapelketako hiru kanporetatik (Zumaiakoa, Villabonakoa eta

## Hiru kanporaketetako azkena izango da gaur Azkoitia 18:00etan; bertan eskualdeko T-klax taldea arituko da

## Parte-hartzaileentzat jendea ezagutzeko eta ezagutarazteko da baliozkoa txapelketa

gaurkoa, Azkoitia izango dena 18:00etatik aurrera) Villabonakoan aritu zen. Benito Lertxundiren *Gure bide galduek* kantua aukeratu zuen Berastegikoak eta «oso gustura» geratu zen egindako lanarekin. «Oso urduri nengoen, baina iaz baino finago ibili nintzen, behintzat. Iaz nahiko letra zailko kantua aukeratu nuen eta okerrago aritu nintzen», esan du Etxeberriak. Ia parte-hartzaile guztiak bezala, txikitatik kantatzen du gazteak eta panderoa ere jotzen du gainera. Berastegikoarentzat era honetako ekintzak oso garrantzitsuak dira, batez ere «euskal kantak ez galtzeko».

Iñaki Barriola ere Berastegikoak da eta Villabonako kanporaketan hartu zuen parte baita ere. Bikantu aukeratu zituen: Ken 7ren *Irudi biluztuak* eta *Etzakiten Zu galdua*. «Gustura geratu nintzen, baina oso urduri nengoela onartu behar dut», esan du Barriolak. Gazteak Villabonan oso maila altua zegoela ere azpimarratu du, eta horrexegatik «ez dakit ze pasako den, auskalo zeinek irabazten duen! Oso maila altua zegoen. Jende guzti horrekin ikasteko aukera behintzat izan genuen».

## Txapelketatik eszenatokietara

Kantu Txapelketa, hortaz, jendea ezagutzeko eta beldurrak uxatzeko da baliozkoa, baina baita kantari gazteak ezagutzera emateko. Horren adibide garbia ere badugu eskualdean. Lain taldeaz ari gara. Iazko txapelketaren ondotik sortu zen eta bertan Leire Berasaluzek eta Kristina Arantzabek hartzen dute parte, besteak beste. Bikote honek iazko edizioan hartu zuen parte eta bertan ezagutu zituen T-klax taldeko Jon Altuna eta Iñar Sastre.

Lanean hasi eta jada 25 bat emandaldi eskaini dituzte Lain taldeko ekazken urtean eta gaur bertan ere Tolosako Usabalen arituko dira.

Leire Berasaluze eta Kristina Arantzabek osatutako bikoteak Villabonako kanporaketan hartu zuten parte; Berasaluzek azaldu du esperientzia nolako izan zen, izan ere, Adunako gazteak Iñar Sastrekin beste bikote bat osatu eta pasa den asteko kanporaketan emandaldi bikoitza eskaini zuen. «Iñarrekin batera berak konposatutako kantu bat eskaini genuen; Iñarrek pianoa jo zuen eta bigarren ahotsa egin zuen eta nik ahots nagusia egin nuen. Bateria Jon Altuna aritu zen. Kristinarekin berri, Jon Altunak konposatutako *Hitz galduek* abestu genuen eta baita Zea Maysen *Besterik ez naiz kantua ere*», argitu du. Berasaluzeri txapelketak eszenatokietara sal-



Leire Berasaluze eta Kristina Arantzaberen Villabonako kanporaketako emanaldiko irudia. EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEA



Ibarrako Oihane Sarasola ere Villabonako kanporaketan aritu zen. EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEA

to egiteko aukera eman dio eta horrek «esperientzia eta segurtasuna» eman dio, batez ere.

Jon Altunak, bere aldetik, T-klax taldearekin hartu du parte txapelketan, nahiz eta aipatu bezala beste parte-hartzaile batzuekin ere aritu den batera edo pianoa jotzen, edota kanturen bat konposatuz. Musika barru-barruan darma ibartarrak eta perfekzionista hutsa dela ere onartu du. T-klax taldea gaurko kanporaketan ariko da beraiek konposatutako kantu batekin. Altunak ez daki zer pasako den txapelketan, zeinek irabazi ahal duen, izan ere «maila altua» da oso eta teoriarik epeimahaiaik «ahotsa luzitzen direnei eta lasatasuna transmititzen» dituztenen aldeko bozka ematen badu ere, «auskalo zer gertatzen den!». «Jendea ezagutzeko eta gu ere ezagutzera emateko bidea ematen du txapelketak, zure herrian bertan ahots oso onak daudela ikusteko ere balio du», esan du gazteak.

Ibarrako beste gazte batek ere hartu du parte txapelketan. Oihane Sarasola da gazte hori, iazko edizioan ere aritu zena. Begiak

ixtita kantatzen duela onartu du, ohitura hori duela, urduritasunarengatik izango da behar bada, baina teknikak funtzionatzen dio behintzat, iaz bigarren sailkatu zen eta horrek Euskal Herriko Kantu Txapelketan egoteko aukera eman zion. Aurten *Loa-loa* kantu herrikoiarekin eta Urtzen *Maite dut*-ekin hartu du parte. «*Loa-loa* a capella kantatu nuen eta oso urduri jarri nintzen. Kantu hau berezlasai kantatu behar da, baina urduri atera zitzaitezen», argitu du. Ez du kantuko eskolarik hartzen, baina abesteara zainetan darma, «familiak transmititu ditzen zerbait da», azaldu du ibartarrak.

Eskualdeko azken parte-hartzaileak Tolosako Garazi Egiñuren da. Egiñurenek Zumaiako kanporaketan hartu zuen parte eta Berri Txarraren *Bueltatzen* eta berak konposatutako *Zuretza nituen arrosak* hasi abestiak kantatu zituen. Oso urduri jarri omen zen hasieran, baina gero, kantatzeko unea iritsi ahala, lasaitu egin zen. Gustura geratu zen, eta berarentzat hori da garrantzitsua.

Eskualdeko parte-hartzaile hauek guztiak onartu dutenez ez dakite zeinek irabaziko duen, ez baitago denetan nabarmen den ahotsik. Maila oso altua dela diote eta urteik urtera hobea dela uste dute. Euskal Kantuzaleen Elkarteak Ainhoe Ansak ere iritzi bera du.

## Kantuzaleen bilgune

Giro ona izaten dela gaineratu du Ansak: «Zumaian eta Villabonan giro oso ona egon zen. Parte-hartzaileen lagun asko joaten da baina kantu zale asko ere gerturatzen da. Parte-hartzaileen arteko giroa oso ona izaten da normalean. Ez dugu ahaztu behar Euskal Kantu Txapelketak kantuzaleen arteko bilgune izan nahi duela. Kantari eta musikariek elkar ezagutzeko leku bat eta elkarrekin sor litzaketan hainbat proiekturen abiapuntu».

Gaur arratsaldeko Azkoitiko kanporaketa eta gero emango dute jakitera, hortaz, nortzuk izango diren Donostiako Antzoki Zaharreko finalean, azaroaren 9an, parte hartuko dutenak, seguru eskualdeko norbait ere badela tartean.



Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformakoek, oztopen gainetik, parte-hartzen jarraituko dute. HITZA

## «Gerontologiko berriak ez du kanpoan estalperik»

**Gizartea** » Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformakoen ustetan hau da etorkizuneko eraikinaren akatsetako bat.

### ERREDAKZIOA

Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformak agerraldia egin zuen herenegun, Gerontologiko berriak izango denaren inguruk urbanizazioaz hitz egiteko.

Plataformakoek Euskal Herria plazako gerontologikoa, bere horretan mantentzearen defentsa egiteko arrazoietako bat kokapenarena zen. Beraien ustetan, arkupeaz inguratutako plaza batean egotean, eguraldi txarra egiten zuten ere, bakarrik edota haien senideekin kalera ateratzeko aukera ematen zien egoitzakoei. Gerontologiko zahararen aldeko plataformakoen esanetan, «herri-askok, gehien azpimarratu eta eskertzen zuten ezaugarrietako bat zen hura». Horregatik, egoitza

berriaren proiektua ezagutarazi zutenean, plataformakoek ikusi zuten akatsetako bat eraikinaren aurrealdean gelditzen den plaza da. «Bertan, apaingarritarako besterik balio ez dezakeen sapa inklinatu bat, aurreikusten zen» plataformakoen esanetan. Hala, honek, eguraldi txarra egiten duenetan, «erresidentziako erabiltzaileei ez die inolako mesederik egingo, egoitzaren barruan geratzera derrigorputako dituelarik».

Zahartzaro duinaren aldeko plataformakoek herenegun egin-dako agerraldian agertu zuten ere, «herrietako plazen diseinua eta eraikitzea Udalen ardura da eta belaualdi ezberdinak gozatu edota sufritu beharko dituzten erabiltzaileak dira». Halaber, hartu beharreko ardura, horrenbeste-koa izanda, beste helburu batzuk dituen enpresa baten esku ezin dela utzi deritzote. «Horretan eskarmentua badaukagu herri hone-*te*, diote, eta adibide gisa, *parke jurasiko* ezizenez ezagutzen dena aipatu zuten. «Plaza hau, egin eta

gutxira eraldatu egin behar izan zuten Udalak, inork erabiltzen ez zuela ikusita». Aldiz, kontrako adibidea izango litzateke Plaza Berria. Gaur egun Tolosan «bizi gehien» duen plaza da. Hau, herri-tarren eskaerei erantzunaz eta hauen beharren arabera eraikia izan zen.

### «Parte-hartze eskubidea ukatuta»

Duela aste batzuk, Zahartzaro Duinaren Aldeko plataformakole-hendakariak salatu zuten Joxe Agustín Arrieta zinegotziak «Ongizate Komisioan parte-hartzea» galeratzen zitzaiela. Egoerak «berdin» jarraitzen duenez, beraien iritziak komunikabideen bitartez ematea erabaki dute.

Zailtasunak direnak direla ere, ahalik eta zahartzaro duinena bermatuko dituzten zerbitzuen alde, lanean jarraituko dutela berretsi dute. Erroka horri aurre egiteko, beraien esku dauden baliabideak erabiliko dituzte, besteak beste, prentsaurrekoak.

## Aurten, diziplina gaia landuko dute Orixen guraso eskoletan

**Hezkuntza** » laz gurasoek egindako eskaerei erantzunaz antolatuta dituzte saio hauek; denera hiru izango dira.

### ERREDAKZIOA

Samaniago Orixe ikastetxean, iazko gurasoen eskaerak kontuan edukita, ikasturte honetako Guraso Eskolaren barruan, diziplina gaia landuko dute euskaraz hiru

saiotan. Jose Fco Amiama psikopedagogoaren laguntza izango dute horretarako.

Lehenengoan, zer den diziplina gaur egun eta seme-alabek nola ulertzen duten kontzeptu hau izango da gaia. Bigarrena etxetan erabiltzen diren estrategiei buruz izango da (nola hitz egiten diegun, ze zigor mota erabiltzen ditugun), eta hirugarren saioan gurasoen ke-*xak* seme-alabei nola adierazi, komunikazio teknika baten bidez, landuko dute.

Nerabeez eta etxeko diziplinari buruz hitz egiteko, hamabostean behin Orixen bertan (1. zikloaren eraikuntzan) bilduko dira gurasoak 18:30etik 20:30era.

Hilaren 27an, azaroaren 11n eta azaroaren 26an izango dira jardunaldiak. Honenbestez, 1, 2 eta 3. DBHko ikasleen familiak gonbidatuta daude. Era berean aipatzeko da, programa hau Tolosako Udalak Gizarte Zerbitzuen bidez emandako diru laguntzez gauzatu dela.

## Azkenik gaur jokatu dute Skate Txapelketa

**Aisia** » Honez gain, graffiti erakustaldia eta kontzertuak izango dira gaur arratsaldean, Bonberenean antolatuta.

### ERREDAKZIOA

«Bonberenean beti dago festa», asteburu gehienetan bezala, oraingoan ere ekitaldi ugari izango dira. Alde batetik, pasa den larunbaterako antolatu zituzten graffiti erakusteta eta skate txapelketa bertan behera geratu ziren, eta azkenik, gaur egingo dira.

Zortzigarren aldiz, Skate Txapelketa jokatu da gaur. 16:30ean hasiko da lehia. Bertan, eskualdeko gazteak skatean ibiliko dira. Musika eta sariak ere izango dira hemen. Bestetik, garai berean, graffiti erakustaldia egingo dute etxe okupatuaren kanpoaldean.

Eguna ongi amaitzeko musika izango da protagonista Bonberenean eszenatokian. Taula gainean izango dira 22:30etik aurrera Gaueko itzalak eta Ipar haizea taldeak.

Gaueko itzalak taldea Lasartetik dator beraien rock-metal doinuak ezagutzera emateko asmoz. Ipar haizea taldea berriz, Zarautzetik dator, baita ere beraien Rock Metal doinuekin aparteko giroa jartzeko.

Asteburua ongi amaitzeko, bihar, Tex & The sun flower seed talde japoniarra eta Esne beltza talde ariko dira Bonberenean. Kontzertua 22:30 aldera hasiko da. Talde japoniarrak bere azken lana aurkeztuko du bertan, *Circle of life* izenekoa hain zuten ere. Esne beltza taldeak ere bere lehendabiziko diskoa duela gutxi kaleratu du, *honek Made in Euskal herria* izena du.

## San Frantzisko elizan izango da gaur Orfeoia

**Kultura** » Duela hamar urte eskaini zuten bere lehendabiziko kontzertua, eta hori gogoratzeko emanaldi bat eskainiko du.

### ERREDAKZIOA

Bihar hamar urte, Tolosako Orfeoia bere lehendabiziko kontzertua eskaini zuten. Hau gogoratzeko asmoz, bihar 13:00etan San Frantzisko elizan ospatuko den mezan parte hartuko dute.

Ondoren, ekitaldi pribatu bat, egingo dute Tolosako jatetxe eza-gun batetan, bertan beraien 10. urteurrena dela eta Tolosako 28 Kanalak prestatu duen erreportaieren aurrerapen bat aurkeztuko dute.

Hamargarren urteurrena ospatzeak, hainbat ekitaldi ari dira bu-

rtzen urte guztian zehar, Orfeoioak. Horien artean, aipatzekoa da, joan den astean Leidor antzokian taularatu zuten Jesus Guridiren *El caserio* zartzuela. «Arrakasta handi lortu zuten ikuskizunak, eta izugarri gozatu zuten bertaratu zirenek».

El caserio, Jesus Guridiren obra ezagunenetakoa bat da. Guillermo Fernandez Shaw eta Federico Romeroen jatorrizko libretoarekin, hiru ekitaldiko komedia liriko da. 1926an aurkeztu zen zartzuela komiko hau. Euskal Herrian, Arrigorri herri asmatuan dago kokatua. Ezkutuko interesa eta amodioetan oinarritutako argumentuarekin.

Baserrin baten ondorengotzaren gainean XIX. mende hasieran zeuden ohiturak islatzen ditu. Horrela, baserriaren jabeak plan bat asmatzen du bere jabetzaren ondorengotza ziurtatzeko.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar da. Interesatuak deitu 657 23 0011era edo 634 91 94 82ra.

### LANA

■ **Sukaldaria.** Ostiral eta larunbat iluntzetan, sukaldari gisa aritzeko pertsona behar dugu. Telefono zenbakia: 699 71 02 73.

■ **Ile-apaintzailea.** Ile-apaintzailea behar dugu Anoetan, asteburuetan lana egiteko. Interesatuak deitu 615 76 77 64ra edo idatzi [axisander@yahoo.es](mailto:axisander@yahoo.es)-era.

### GALDUTAKOAK

■ **Zakurra.** Artzain txakurra galdu dugu, Tolosako tren-geltoki inguruan. Aurkitzen duenak deitu dezala 627 45 91 19 telefono zenbakira.

# Hainbat egitasmo dituzte Hutsunea Betez elkartekoek

**Villabona** » Aldarrikapen ekitaldiak eta tailerrak antolatu dituzte, bestek beste; azaroaren 2rako mendi irteera egingo dute.

## ERREDAKZIOA

Hutsunea Betez emakumeen elkarteak hainbat egitasmo aurreikusten ditu udabitartean. Horieta-ko bat famili giroko mendi irteerak dira eta azaroaren 2rako irteera bat antolatu dute. Alkizara joango dira eta 10:00etarako gelditu dira Olaederra kiroldegia-aren aurrean. Bakotzak bere bazkaria eraman beharko du.

Mendi irteera familiar hauekin, elkartearen helburua gertuko ibilbide ezagutaraztea da, baita naturarekin harremana zein irteerara joaten direnen arteko harreman ona sustatzea.

Hutsunea Betez elkartetik azalzen dutenez, bere lehenengo helburu nagusia emakume eta norbanako pertsona bezala errealizatztea da eta ondoren talde bezala, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko lan egin ahal izateko.

Horri begira antolatu dituzte egitasmoak. Aldebatetik barre-tailerrak antolatu dituzte. Horieta-ko bat dagoeneko egin dute eta aurrerak bergira gehiago antolatzeko asmoa dute. Tailer hauek nahi due- nearentzat irekiak dira, emakumez zien gizonezkoentzat eta 18 urte baino gehiago dituztenentzat. Hilean behin antolatu nahi dituzte ekaina bitartean, igandeetan eta lau ordutako saioetan.

Beste tailer batzuk, adimen emozionalari buruzkoak, ere martxan jarri dituzte, Pepa Bojo psiko-

logak eta sexologak ematen ditue- na. Horieta-ko bat eginen ari dira dagoeneko, *Emakumearen idenditate eta ahalmen-jabetza, arbasoen tailerra* izenekoa. Partaide kopuruarengatik elkarteko kide- entzako mugatuta zegoen parte- hartzea.

Bigarren hiruhilabetekoan sei saioa egingo dira genero indarke- rriaren prebentzioari buruz. Hiru- garrenko hiruhilabetekoan afektu- bitate-harremani buruzko taile- rra egingo dute, hamar saioetako.

Beste tailer bat nortasuna eta giza harremani buruzkoa izango da, baina hau ere elkarteko kide- entzat bakarrik izango da, partaide- tza kopuruarengatik.

Ekialdeko dantzei buruzko ikastaro bat antolatzea aurreikus- ten dute ere. Urri/azarotik maia- rra/ekaina bitartean antolatzea da asmoa, bai Villabona-ko bai bailara- ko emakumei zuzenduta. Astean behin izango litzateke, ordu eta er- diko saioetan.

## Emakumearen egoera

Hutsunea Betez ere ekital- diak antolatu ditu emakume- ren egoerari buruz eta beraien eskubideak aldarrikatzeko, eta ho- riei buruz gizarte-ari kontzientzia- tzeko. Horrela, azaroaren 25ean, Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, eta mar- txoaren 8an, Emakumearen Na- zioarteko Egunean, ekitaldiak an- tolatu dituzte. Azken egun hon- en harira, Emakumearen Astea antolatzea pentsatzen dute.

Beste egitasmoetako bat ikas- turte amaierako txango ludiko- kulturala antolatzea da. Aurreko- an San Joan Gaztelugatxera joan ziren eta elkartekoak «oso gustu- ra» gelditu ziren emaitzarekin.

## Laburrak

### Kirol Astea antolatzeko bilera egingo dute 29an

**ANOETA** » Kirol Astea antolatzeko bilera deitu du Anoeta-ko Udalak. Hitzordua hilaren 29an, asteazke- na, izango da, udaltxean. Bilera 19:00etan hasiko da eta Udaletik herritarrek animatzen dituzte ber- tan parte hartzera.

### Rolleski Igoera egingo dute gaur arratsaldean

**HERNIALDE** » Gaur arratsaldean Hernialdeko Rolleski Igoera egin- go dute. Proba 16:00etan hasiko da eta bi modalitatean parte hartu ahaliko da: patinatzaile eran eta klasikoan. Proba hasi baino ordu erdi lehenago izena eman daiteke Tolosako Belate auzoan.

### AHTk kaltetuko dien lurjabeek zuzenduta, bilera

**TOLOSA** » Abiadura Handiko Tren- nak kaltetuko dituen lurjabeek zu- zenduriko informazio batzara egingo dute Tolosako Kultur Etxean, etzi, hilak 27, 19:00etan. EHNEko Pabel abokatuek AHTko lanek lurjabeengan izango duten eraginaz hitz egingo du. Beste gaien artean, desjabetzeaz, lur ja- beek dituzten eskubideez eta lan- nak egiteko baimena ukatuz gero dauden aukerez arituko da. Lurja- beek zuzenduta egon arren, bilera irekia da nahi duen guztientzat.

### Jesusen Bihotzakoen mendi irteera bihar

**VILLABONA-ZIZURKIL** » Jesusen Bihot- zak mendi irteera antolatu du biharko. Ateagako itzulia egingo dute mendizaleek, Fraisoro, Atea- ga, Lumane, Villabona ibilbidea eginez. Irteera Txermingo Ikasto- latik egingo dute, 10:00etan, eta itzulerara 12:30ak aldera izatea es- pero dute, Txermingo ikastolan bertan. Hamaiketako eta edaria norberak eraman beharrekoak dira.

# Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketa abian

**Zizurkil** » Lehiaketaren helburua idatzeko zaletasuna sustatzea da; lana aurkezteko epea azaroaren 17a izango da.

## ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalaren Euskara Sai- lak zazpigarrenez antolatu du Teo- doro Hernandorena Ipuin Lehiaketa. Parte-hartzaileak Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irurra, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek izan behar dute eta hauen artean idatzeko zaletasuna sustatzea da lehiaketaren helburua.

Bost mailatan banatzen da Teo- doro Hernandorena Ipuin Lehiaketa. A maila, 6 eta 8 urte bitartean; B maila, 9 eta 11 urte bitartean; C maila, 12 eta 13 urte bitartean; D maila, 14 eta 16 urte bitartean; eta E maila, 17 urtetik gora. Gaia librea da eta lan bakoitzaren hiru kopia aurkeztu beharko dira azaroaren 17a bitartean, egun hori barne, Zi- zurkilgo udaltxeandoradul bule- goetan.

Bi sari banatuko dira maila ba- koitzeko eta lan sarituak Udalaren esku geldituko dira. Sari banaketa abenduaren 19an egingo da. Epai- mahai aditu batek aukeratuko ditu idatzeko zaletasuna sustatzea da ordetzaria izango du.



lazio lehiaketan saridunak izan ziren idazleak. A. IMAZ

# Kultur ikastaroetan izena emateko aukera

**Villabona** » Egur lanketa, pintura eta zaharberritze eta arte aplikatuak egin daitezke; epea izena emateko, hilaren 31ra arte.

## ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak Sacemen kul- tur ikastaroak antolatu ditu. Hiru daude aukeran: egur lanketa, pin- tura eta zaharberritze eta arte apli- katuak. Ikastaroetan izena emate- ko aukera dago oraindik, epea

urriaren 31n amaitzean baita. Ho- rretarako 943 69 16 55 edo 943 69 21 00 zenbakietara deitu behar da izena emateko.

Egur lanketaren ikastaroa aste- lehenetan izango da 15:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 21:00etara. Urteko kuota 140 euro- koa da.

Pintura ikastaroari dagokionez, helduek asteazkenetan, 16:00eta- tik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara dute ordutegia. Hau- rren ordutegia zabalagoa da: aste- arteetan, 17:15etik 18:15era eta 18:15etik 19:15era, eta ostegunetan, 16:15etik 17:15era, 17:15etik 18:15era eta 18:15etik 19:15era. Haurrek Lar- rrea 20an egingo dute ikastaroa. Urteko kuota 50 eurokoa da (hau- rren kasuan materiala barne).

Zaharberritzea eta arte aplika- tuak ikastaroa hasi berri dute. Or- dutegia asteazkenetan 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 17:00etara da. Urteko kuota 60 eurokoa da.

Villabonako Udalak jakinaraz- ten du ikastaroietan parte harzten duten ikasleentzat Sacemgo taile- rrik zabalki egongo direla uneoro, baita ikastaroirik ez dagoen egu- netan ere.



308 SW  
PEUGEOT  
BERRIA

## TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban Auzoa, 14-A

20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tfn: 943-650337 Fax: 943-652938

e-mail: tolosa@tolosa.redpeugeot.com



## ARAMBURU

Alokatzeko (Tolosa).

Garajeak, San Frantziskon, Araba

etorbidean eta Batxiler Zaldibian.

**Salgai (Tolosa).** Etxebizitzak.

Kale Nagusia, Araba etorbidean

Batxiler Zaldibian eta Martin Jose

Iraola kalean.

**Salgai (Legorreta eta Iruran).**

Etxebizitza eraberritzeko.

**Salgai (Irura).**

Etxebizitza sartzeko moduan.

**Salgai.** Garajea itxiak eta irekiak.

Amarozten (Tolosa) eta

Idoigan (Ibarra).

943 65 17 13 / 677 46 09 16

# Tolosako hiru poker jokalaria Espainiako Txapelketan

**Tolosa** » Gaur Donostian 120 lagun inguru bilduko dira, 20.000 euro inguruko sariaren bila, aurrez aurre mahaiean jokatu.

## ERREDAKZIOA

Gaur Donostiako Kursoal Kasinoan Tolosako Jabier Iraola, Unai Iruin eta Imanol Aierza ariko dira Espainiako Poker Txapelketan. Aurreko asteburuan Tolosako Beotibar pilotalekuan 112 jokalaria elkartu ziren eta bertatik 10 para dira gaurko txapelketara, baina «ez zen

tarlean Tolosaldeko inor». Aurretik sailkatu ziren gaur ariko diren Tolosako hiru jokalaria, beste kanporaketa batean, alegia.

Tolosan ez da beste inoiz poker txapelketarik egin maila honetan behintzat. Kanporaketa hau Jape elkartearen bitartez egin ahal izan zen Tolosan. «Hiru urte daramatzagu elkartearekin eta gaur egun 300 bazkidetik goragara dagoeneko».

Japeren eskutik, gaurko txapelketaren nondik norakoak zuzenean jarraitu ahal izango dira [www.gurepoker.com](http://www.gurepoker.com) webgunearen bidez.

## Tolosaldean «zaletasun gutxi»

Pokerrarekiko zaletasuna «ez dago oso zabaldua Tolosaldean. Guk jendea ezagutu dugu Donostian adibidez». Beste txapelketatan eta torneotan aritzearekin bezar ezagutu dute pokerrean dabilen jendea. Duela hiru urte sortu zuten Jape elkartea, pokerrariultzada emateko asmoz.

Pokerrean aritzeko, zaleek joku hiru faktoreren arabera dago: %30 zortea, %35 ezagupena edo estrategia (dominatu, momentua ezagutu...) eta beste %35 matematika (zenbat diru jokatuko, noiz...).



## Herriko altxorak bisitatzen

**ALTZO** » Herenegun Altzoko eskolako zenbait haur, lehenengo mailatik seigarrenera, hain zuzen, Imaz Pagoa ikustera joan ziren. Herrian bertan duten naturak eskainitako oparitxo bat da zuhaitza, Imaz bertsolaria ezkondu zenekoa (1836. urtean, hain zuzen). Imaz bertsolariak idatzitako bertsoak ere kantatu zituzten eta zuhaitzaren zabalera neurtu zuten: 5'60 metro neurtzen du. Ondoren, Imaz jaio zen baserria bisitatu zuten, Legarre, alegia: honen baitan Urkiko buelta egin zuten, baserri baserri doanekoa. Ordu pare batean egindakoa izan zen. Ez dute ahaztuko nolana goiza, bertara joan ziren ikasleek... HITZA



## Ibiurren, deforestatze lanak hasita

**BALIARRAIN** » Ibiur urtegia urez betetzen urriaren hasieran hasiko zirela adierazi zuten obretako teknikariek udan. Kontua da, gaur egun obra zibila bukatu dutela eta orain bertan urez betetzeko duten eremua

deforestatzen ari direla. Lan honen ondoren urez betetzen hasiko dira. Ibiurrek 7'53 hektometro kubikoko gaitasuna dauka, Gipuzkoako laugarrena gaitasunari dagokionez. N. URBIZU

## Laburrak

### Altzoko Plan Orokorra aurkezteko bilera, etzi

**ALTZO** » Altzoko Udalak Altzoko Plan Orokorra erredaktatzeko lana arkitekto talde bati esleitu zion eta dagoeneko aurrerakina edo abantzea deituriko dokumentua idatzi dute eta Udalak jendaurreko erakusketan jartzea erabaki zuen azkeneko bilkuran. Altzoko herritarrek eta Altzon lur sailak dituztenek ahalik eta informaziorik gertukoena izan dezaten, Udalak Plan Orokorren Aurrerakina aurkezteko bilera antolatu du etzi 19:00etan, udaletxean.

### Gaur 'Herria Kantuan' eta bihar Dantzari Txiki Eguna

**ALEGIA** » Gaur, Alegiako Kultur Etxean Herria Kantuan emanaldiaren proiektzioa izango da, Udazkenean Kulturaren baitan. Bi ordu irauten du eta 11:00etan hasiko da. Dena den, proiektzio hau etzitik ostitralera arte ere izango da 18:00etan. Bihar, berriz, Dantzari Txiki Eguna izango da goizean zehar Larraitz auzotik abiatuta.

## Altzon bihar, Jubilatuen Egunaren baitan Asmuberen saioa eta festa

### ERREDAKZIOA

Bihar Altzon Jubilatuen Eguna ospatuko dute bertako Udalak antolatuta, eguerditik aurrera egitarau oparoa osatu dutelarik. Meza Nagusia izango da lehenik, 12:00etan. Ondoren, Beasaingo Asmube abesbatza bereziak saio bat eskainiko du.

Herriko Artea taldeko dantzariak ere ariko dira, plazako hautsak astintzen. Mendizabal eta Sorozabal bertsolariak ere izango dira. Ondoren, jubilatuek eta izena eman dutenek (jada ezin da izena eman) Arandia jatetxean bazkari legea egingo dute, honetan ere, bertsolarien eta herriko trikitilarien laguntza izanik.

Jubilatuen Eguna bada ere, jubilatuta ez dagoen jendeak ere gozatu ahal izango du, festa eta giro ona ez baitira faltako bertsolari, trikitilari eta dantza izanik.

**txokoa h**

**sarrera pare**  
zozketan

irabazlea:  
Benito Bernabe (Leaburu)

**BRUESA GBC**  
Tau Ceramica

IGANDEA  
URRIAK 26 • 12:30  
ILLUNBE

**2 sarrera pare** zozketan

**"Teresa Salgueiro eta Lusitania Ensemble"**

irabazleak:  
Ione Redondo (Anoeta)  
Axun Alkorta (Tolosa)

Larunbata, 25 • 20:30ean  
Tolosako Leidorren

**2 bonu pare** zozketan

**URRIAK 25 HERNANI**


irabazleak:  
Pablo Otegi (Zizurkil)  
Maribi Lazkano (Ikaztegieta)

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Bruesak sarrera HITZAko erredakzioan izango dituzue eta besteak beraien leihatiletan bertan.

# Lapurdirako bidea hartuko dute datorren astean

**Ibarra** » Haitzetan Raju Mendi Taldeak Askainetik hasi eta Larrun mendirako ibilaldia antolatatu du datorren iganderako.



Haitzetan Raju Mendi Taldeak antolatutako aurreko irteeran Urbasan egon ziren. A. IMAZ

## ERREDAKZIOA

Ibarrako Haitzetan Raju Mendi Taldeak eta Bai Euskal Herriari taldeak abiarazitako *Geurea Iku-rrina* ekimenaren barruan Lapurdirako bidea hartuko dute datorren igandean, azaroak 2. Askainen hasiko dute ibilaldia eta handik Larrun mendira igoko dira. Menditik Askainera joango dira

ondoren, baina beste bide batetik. Ibilaldiak 4 ordu inguruko iraupena izango du, «beti ere eguraldiak eta ibiltzeko gogoak» baldintzatuta, argitu dute.

Mendi taldekoek parte hartzera animatu nahi dituzte guztiak: «Bertatik kantauri itsasoko kresala usaintzera, mugalarren bide ezkutua aurkitzera eta inkisizio odol erru gabeak bustitako lur zoragarri hauek ezagutzera, izan ere Pierre Lancre XVII. mende hasierako inkisidore famatuak mendi honen gainean garai hartan zegoen ermita batean jai satanikoak burutzen zirenean ustea zuen», gaineratu dute Haitzetan Rajukoek.

## Autoeskola Antikapitalista, ezkerreko kontzientzia astinduz

**Ibarra** » Antikapitalismo sentimentuak eta kontzientzia ezkeriarrek elkartu ditu sortu berri den talde honetako partaideak.

## ERREDAKZIOA

Kontzientzia ezkeriarra duen ibartar talde batek Autoeskola Antikapitalista bezala batailatu duten taldeasortu dute. Talde anitza dela eta antikapitalismoak elkartu dituela diote. «Gure gertuko helburua herritarren artean kontzientzia iraultzailea piztea» dela ere argitu dute eta baita «langile klasea eta masa zapaltzen dituen sistema kapitalistaren birrinketan gure haieatxo ipintzea» ere.

Aipatu helburua bete ahal izateko «autoformakuntza» sakonduko dutela ere argitu dute. Autoeskola Antikapitalistak kideak, gainera, krisia pairatzen ari diren herraldeetako politikariek planteatu duten kapitalismoaren «refundazioaren» aurrean alternatibak eskaini nahi dituztela ere esan dute ibartarrek.

Era berean, greba mugagabeen dauden Idiazabalako Jaso enpresako langile guztiei euren elkarta-

suna adierazi nahi izan diete Autoeskola Antikapitalistakoek.

Talde sortu zenetik bilera desberdinak egiten aritu dira, non «testu iraultzaile klasikoak irakurri eta eztabaidatu» dituzten taldekideen artean oinarri ideologikoa gorpuztu ahal izateko. Agertu dutenaren arabera, aurrerantzean ere jardun honekin jarraituko badute ere «ideologia iraultzailea zabaltzeko» zinema politikoa proiektatzen hasiko dira.

### Filmak bi astez behin

Besteak beste, klase borroka, nazio askapena eta gizarte-borroka bezalako gaiak jorratzen dituzten filmak eskainiko dituzte Autoeskola Antikapitalista taldekoek bi astez behin. Pelikulak asteazkenetan izango dira, 21:00etan, Ibarrako Gaztetxean.

Horiek horrela, lehen filma datorren asteazkenean, hilak 29, eskainiko dute. *En el nombre del hijo* da proiektatuko duten lana. Terry George gidolariaren lehen pelikula honek irlandar preso errepublikarrek Long Kesheko H Blokeetan burutuko gose greba du hizpide. Gose grebaren ondorioz pentsakera ezberdinetako bi presoen amak harremantzen dira eta

semeen borrokari jarraiki kontzientzia politikoa garatzen dute.

Hurrengo filma azaroaren 12an izango da. John Ford zuzenari apartaren *Las uvas de la ira* pelikula John Stenbecken liburu entzutsuaren egokitzapena da. Bertan 1929ko krisiaren ondorengo miseria islatzen da, non nekazariak euren lurraldeak galdu zituzten eta norberaren lan indarra saltzea beste aukerarik ez duten. Langileek laster egingo dute topo kapitalisten bekaizkeria eta zapalaketarekin.

Azaroaren 26an *Ogia eta larrosa* eskainiko dute. Ken Loach zuzendari ezkeriarren lan honetan garbitzaile enpresa bateko langileak, emakumeak guztiak, bizi baldintza hobekitzeko egin greba ikusi daiteke. Klase borroka erakusten duen pelikula da hau.

### Anarkista baten gora beherak

Oraingo aurreikusitako azken filma *Lucio* izango da. Abenduaren 10ean eskainiko dute. Aitor Arregik eta Jose Mari Goenagak egin dako dokumental honetan Lucio Urbibia anarkista nafarraren gora beherak diranagusi. Urbibiak txekelak faltsutzen zituen bankuak «desjabetzeko», nafarrak berak esan izan duenaren arabera.

## Basauriko Soloarteren aurkako partidua dute gaur ibartarrek

**Ibarra** » Areto futbol taldea Basaurira joango da gaur; partidu honetarako ere baja ugari izango dituzte.

## ERREDAKZIOA

Ibarrako areto futboleko Lauburu taldea Soloarteren aurkako partidua jokatu du gaur Basauriko Artxuduanga kiroldegian 18:15etik aurrera. Oraingoan ere, aurreko partiduetan bezala, baja ugari dituzte eta Igor Zabalok eta Ion Ander Karrerak ere ez dira Basaurin egongo arazo pertsonalak direla medio.

### Gazteen esku

Horiek horrela, Txubel entrenatzaileak eskarmentu handiko jokalaririk ez dituzte eskura izango, gainontzeko ia guztiak jokalaririk ez izango bait dira.

Ibarrako taldeak emaitza nahiko onak lortu ditu azken hiru denboraldietan Basaurin, nahiz eta oraingo honetan bizkaitarrak nahiko indartsu hasi diren, denboraldi honetako sailkapeneko lehen postuetan daudelarik.

## Zeberio II.ak Ezkurra agurtuko du gaurko partiduan

**Elduain** » Galarretan arituko dira aurrelariak; asteburua eta gero bi asteetako oporraldia du aurretik elduaindarrak.

## ERREDAKZIOA

Zeberio II.a Ezkurraren aurka arituko da gaur Hernaniko Galarretan pilotalekuan 17:00etatik aurrera. Gaurkoa eta gero oporrerara joango da elduaindarrak.

Aipatu behar da, Ezkurra eta Zeberio II.aren arteko denboraldi honetako 40. partidua dela gaurkoa eta hogeina garaian izan ditzutela. Oraingo honetan, Ezkurra Ionekin batera arituko da eta Zeberio II, berriz, Etxaberekin, zeinak mesede egingo dion elduaindarrari denboraldi honetan oso ondo ari da eta.

### Bihar, Uhartan

Gaur Hernaniko Galarretan eta bihar Uhartan jokatu dituen partiduetan eta gero bi asteetako oporraldia izango du Zeberio II. Oporraldiak eta gero Binakako Erremoneko Txapelketan ariko da Elduaingo pilotaria.

## Hilberriak eta urteurrenak

**BERONIKA ITURRIOZ ETXEBERRIA**  
Andrea

Atzo hil zen, 85 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

**-Goian bego-**

Eskerrik asko amona, zure ondoan pasa ditugun momentu goxo guztiengatik

Zure bilobak: Lurdes eta Juan Luis, Maite eta Marcos, Maitane, Aintzane, Ibon, Asier, Maialen; bilobak: Monika, Kristian, Erik, Eider; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde ototz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzetezela GAUR LARUNBATA, arratsaldeko SEIETAN, Lizartzako SANTA KATALINA, parroki elizan, GORPUA, bertan dela egingo den hiletara. Aidez aurretik, mila esker.

Hilbidetz: Juan Miguel Txiki Beasna

**Oharra:** Gorpuzte bala Tolosaldeko Funeraria V. asongada Tanatorioan egingo da, GAURLARUNBATA arratsaldeko 17:45ak arte.

**LIZARTZA**  
2008ko urriaren 25ean

I. urteurrena  
**JOXEPI URUZOLA LARRARTE**  
(2007ko urriaren 22an hil zen)

VI. urteurrena  
**MIGUEL ANTON MORENO**  
(2002ko maiatzaren 4an hil zen)

Urte askoan itzarongo diguzuelakoan, ikusi arte

**TOLOSA**  
2008ko urriaren 25ean

Meza, bihar, IGANDEA, 12:30ean, CORPUS CHRISTI elizan izango da.

Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Elusederrerako sarbidea inauguratu dute ordezkariak

**Areso** » Nafarroako Gobernuak, Aresoko Udaleko eta Sukia enpresako ordezkariak hitz egin zuten inaugurazioan.

maiketakoa egin zuten 60 lagun inguruk. Helburu horretarako karpa bereziak jarriak zeuden eta bertan gazta eta menbriloak gain, urdaiazpiko pintxoak eta ardoa izan zituzten aukeran.

## ASIER IMAZ

Aresoko Eluseder industriaguneko sarbidearen inauguratze ekitaldiaburutu zuten atzo. Besteak beste, bertan Aresoko udal ordezkariak eta hauen buru alkatea bera, Mikel Baraibar, Nafarroako Gobernuko Herri lanak, Garraioak eta Komunikazio kontseilaria, Laura Alba eta Sukia Eraikuntzak S.A. enpresako ordezkari eta langileak egon ziren.

Aurkezpen ekitaldi baten ostean, industriagunean barna itzuli bat eman zuten eta ondoren ha-

## Ordezkarien txanda

Inaugurazio ekitaldian lehenik, lanen arduradunak hartu zuten hitza. Ondoren, Aresoko alkatea hasi zen hizketan, euskaraz hitz egin zuten bakarra izan zen. Mikel Baraibarrek Aresoko herriarentzat industriagunak duen garrantzia azpimarratu zuen. Horretaz gain, enpresa ezberdinei dei egin zien, bertan egokitzeko eskatuz.

Azkenik, Laura Albak hitz egin zuen. Honek, umore ukituz edo, Mikel Baraibarri ez ziola ezer ulertu esan ostean, alderdi guztiek eginko lana azpimarratu zuen.



Mikel Garmendia, Laura Alba eta Sukia enpresako ordezkariak Aresoko Eluseder industriagunean. ASIER IMAZ

Oihala igotzen da eta Leitzako zinean, gaur 19:00etan, 8 leitzar agertzen dira ostatu batetan, artista lanetan. Ondoren oihala jaisten da. Nola izena du antzezlanak?

## 'Bihar osteguna da'

## ASIER IMAZ

**S**ortzen da minez. Esaldi batean horrela laburbiltzen du Beñat Huartek gaur 19:00etan, Leitzako zinean, eskainiko duten antzezlanak. Atzo burutu zuten azken antzegia Huarterekin batera, Txinparta Taldea osatzen duten beste zazpi herritarrek. Dena prest beraz; itzal daitezela argiak.

## Biharra iritsiko ote da?

Lur Kortak zuzentzen duen *Bihar osteguna da* lehen ere antzeztu zuten Leitzan, «baina ez zen garai egokia». Udara bete-betea, herritar gutxi eta berriz oholta gainera

igotzeko eskari asko. Ondorioa: gaur eskainiko duten bigarren emanaldia.

Antzezleak atzo, ileorderik gabe, makillajerik gabe eta ikuslerik gabe igo ziren oholta gainera. Azken eguneko urduritasunarekin, ordu eta laurdeneko lanari azken ukituak eman zizkioten. Juan Barriola antzezleak, umore puntuko amodiozko istorioa bat kontatuko dutela aipatu zuen. Belaualdi berriekin lan egiteak sortzen dion gogoia ere azpimarratu zuen. Horretan ari zela, Orkatz Erbiti gerturatu zitzaion, «gazteago sentitzen delako gustatzen zaio gazteekin lan egitea» esanaz.

Bien bitartean, soinu teknikari lanetan ari zen kideak, irratia piztu zuen: albisteak. Huarte kazetaria zezeketen azken ordua aipatzen hasi zen.

Hortik aurrera, biharra zain gaurra ikusten ez dutenen istorioa; maitasunez, umorez eta dramaz apaindurik.

## Antzerkiaren gozatzeko aukera

Antzezlanek duten gertukotasunari mugak jartzeko dago oholta. Aurrean herritarrek ikusten ez dituenak, gaur antzezlanaz osotasunean gozatzeko aukera izango du 19:00etatik aurrera Leitzako zinean.



Atzo egin zuten antzeziaren une bat. A. IMAZ

## Laburrak

### Josetxo Urrutia harri txikiak eta txikiak finalean

**LEITZA** » Harri txikiak Euskal Herriko Harri-jasotzaile txapelketa jokatu da bihar Arrigorriagako (Bizkaia) Udala kiroldegian 12:00etan. Bertan, Josetxo Urrutia leitzarra egongo da. Aterio bezala, Aimar Irigoien, Izeta II.a eta IV.a, Ostolaza eta Agirre edukiko ditu.

### Nafar Jokoan eta txapelketa ezberdinak

**PILOTA** » Aurrerako haurrek Nafar Jokoen barnean, partidak jokatu dituzte Amazabalen gaur, 10:00etatik aurrera. Lizarra, Atarrabia eta Zubirin ere partidak dituzte. Gaur, bihar eta etzi, Burlatan, Errioxan, Lizarran eta Irurtzunen txapelketak jokatu dituzte.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN  
**PROBIGURRAK**



**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Antzerkia

■ **Leaburu.** Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren *Run Run* antzezlan, 18:00etan Leaburuko pilotalekuan. Antzerkia amaitu ondoren askaria banatuko du Udalak.

### Azoka berezia

■ **Tolosa.** XI. Tolosa Goxua azoka berezia San Frantzisko pasealekuan goiz osoan zehar. 09:30ean txurroak banatuko ditu txurro denak, 10:00etatik 11:00etara sagar tarta lehiaketa, 12:00etatik 13:00etara 7.000 tarta razio banatuko dituzte.

### Kirola

■ **Hernalde.** 8. Rolleski goiera Tolosako Belate auzotik hasita Hernaldeko plazara. Hasiera 16:00etan izango da.

■ **Tolosa.** Kirol Gaua 0'0: 20:00etan basket 3x3, areto futbola, cycling-eko maratokia; afaria 0'0 gaztetxoentzat Usabal sagardotegian; 22:00etan karting-ak, goming lanazadera, Ambient musika Nemux DJarekin eta honi buruzko tailerra eta Light Graff sesion eta tailerra.

### Ikus-entzunezkoak

■ **Alegia.** Herria kantuan emanal-

diaren proiektzioa Antton Iztueta eta Eduardo Arrayeten eskutik Kultur Etxean 11:00etan.

### Musika

■ **Tolosa.** *Tolosa Kantari*, 12:00etik aurrera, Tontokalen elkartuta, euskaraz kantatzea atsegin duten guztiei irekita dago deialdia.

■ **Oresa.** Kantaldi saioa, 22:30ean, Anje Duhaldek eskainita Kultur Hamabostaldiaren barne.

■ **Tolosa.** Teresa Salgueiro & Ensemble Lusitania, Mundua Tolosan zikloaren baitan, Leidor aretoan 20:30ean.

■ **Tolosa.** Gaueko itzalak eta Ipar haizea taldeen kontzertua 22:30ean Bonberenean.

### Zinema

■ **Tolosa.** Kultur gorraren zine jaialdia Eskolapioetan, 18:30ean, zeinu hizkuntzan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



## Liburutegietara joateko gonbita

**TOLOSA** Atzo izan zen Liburutegiaren Nazioarteko Eguna eta hori dela eta, hainbat ekintza burutu zituzten liburutegietan hauen erabilera sustatzeko helburuarekin. Tolosan aste osoan zehar egin dituzte

zozketak erabilzaileen artean opariak banatuz. Tolosako Haur Liburutegian atzo arratsaldean, esaterako, ikusi ahal zitelen moduan, gaztetxoenen artean irakurzaletasuna badago. R. CALVO



**Urte askoan!  
Zorionak Iraitzi!**

Zazpi muxu potolo etxeko guztien partetik.

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



943 671 427

esleerarik gabekoak: 10etik 10etara  
buruzkara: 10etik 10etara  
10etik 10etara



Jantzi dotore, jantzi hitza.

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**